

Mikel Dalbret – Ene margolaritza – Lehen. kapitulu



argazkia: Xan Aire. Euskal kultur erakundea

1947ko urtarrilaren 17an Kopenhageko espetxeko zeldatik, Lucien Descaves Goncourt Akademiako lehendakariari bidalitako gutun batean, Louis Ferdinand Celine idazle frantsesak idatzi zuenez: « margolarien pribilegioa da, denboraz urtez urte, beren grazia eta bringoa gora joan dadin ». Nahiz eta segur aski nihaurek ildo hortatik segitzeko desiratu, ziur dena da hori besteen begiradak duela baieztatzen ahal.

Ene Margolaritza

19. mendeko irizpide ontologiko sinpleek margolaritzaren artearen arauak zuzendu zituzten: marina, paisaia, guda, lore, potreta, izadi bizia, historia etab... Garai hartan, Europa erkide espazio kulturala zen, oraindik antzeko pintura tekniken poderioz, gaur egungo erreferentzia unibertsal gisa jarraitzen duena. Ideia hori egun oraino nagusi da, jende arruntak munduan zehar kausi ditzakeen museoetan ikus dezakegunaz. Impresionismoa agertzearekin, ordu arte indarrean ziren usadioetan hausturaren batez ohar daiteke. 20. mendean zehar, zuhaitz semantikoa gero eta ontologia nasaiagoz kargatu zen, sarritan zehaztugabeko mugak ukanez, irakurketak, eta interpretazioen konplexutasuna handituz, nahiz eta praktiken eboluzioa hiper-espezializazio baterantz doan.

Gaur egun, pintura tekniken sailkatzeko erabiltzen diren egin-moldeei esker, funtsezko korronte artistiko ezberdinak bereizten ahal ditugu. Lehenik, irudikapen kontzeptuak, adibidez, kubismo edo hiper-errealismoarenak, dripping, zinetismoa edo pop artearenak, etab, abstrakzioa eta figuratiboa diren bi adar nagusien inguruan.

Halere, sortzaileen egitasmo artistikoari dagokionez, obrak eraikitzeak irakurketan edo interpretazioan euren iturrien bilakabide didaktikoa falta zaigu. Moduen joritasunaren azeleratzeak bakarkako bidea abantailatzen duenez, anitz plastikarik beren desmartxa akrobazia dialektikoen bitartez justifikatzen dute; ondorioz, «arte kontsumitzaile» diren artezaleak, gero eta ezin ulertuagoa den labirinto batean sartzen dira; baina, horrez gain eta bereziki nolabaiteko eragin elitista horrek gogo herrikoiak esterilizatzen ditu, gogo hauek Pariseko edo Lens hirietako Louvres bezalako museoek kontsumora mugatuz. Orain, izendatzea ez da aski, hainbeste korronte, joera, esperimentazio ezberdinen saio horiek bideak lanbrotzen baitituzte.

Dirudiz, interpretazio kontzeptual azkarreko obrak gero eta ugariagoak dira, horrela solasaldia abantailatua da hanpaduraraino, egiazko eduki ikusmenezkoari eta fisikoari garrantzia eman orde. Haatik, ezin da ukatu haietako anitz interesgarriak direla. Nire ustez, geroko artista plastikari belaunaldiei begira izugarrizko tresna kutxa osatzen dute.

Dirudit sintesi batera jotzeko ordu dela, edo gutienez obren nahitaezko azpiko solasaldia errazteko; «Arte plastikoak» deitu izar-lainoan, ez litzateke lorpen ttipia.

Erantzuna aurkitzeko, Schopenhauer eta Nietzsche filosofo alemaniarren hausnarketara jo behar da. Beraientzat sorkuntza artistikoa *apolutar eta dionisiarra* du. Niri dagokidanez, hortaz duela gutxi konturatu naiz behintzat, nire sorkuntzari aplikatzeko.

Nire praktikaren hastapenetik influentzia ezberdinen menpe nenginen, azpimarra nezake mugimendu surrealistan laketago nuen bide libertarioa aurkituz. Halere, nire baitan etengabe margo arteari dagokion ondare klasikoa babesteko grina nuen bereziki, besteak beste Xavier de Langlaisen irakaskuntzaren bitartez, ondokik saio grafiko eta margolaritzako saioetan proiektatuz.

1985ean, Euskal Herrian nire etxe-sartzeak, Pariseko «parasito-inpaktutik» urrun, nire obraren egituraketan eragin handia ukan zuen. Egituraketa edota antolaketa grafikoa, ingurumen kultural berriari esker, inguru horren sinbolo gai ezberdinetan ibiliz, baita bi euskal zizelkariaren obraren aurkikuntzaren eta euren solasaldi teoriko parekoaren bidez, batez ere. Dirudiz Jorge Oteiza eta Nestor Bazterretxea eskultoreen influentziak nahiko paradoxazkoak dira margolari bati aplikatuz. Haatik, ulertzen ahal da, zeren eta betidanik geometria matematikazale naiz, nolabait nire hezkuntza ibilbidearen zati garrantzitsua izanez ere. Agian beste bizitza batean arkitektoa izatea gustatuko zitzaidakeen.

Jakina, Schopenhauerrek 19. mendeko iraultza artistikoen hastapenean, industrialak eta beraz sozialak lagunduz, eragin handia izan zuen sortzaile anitzengan. Berak idatzi zuenez “Egiazko artea ezin ditu denek arau artistikoa segitzen dituen norbaitek sortu, baizik eta arauak axolatu gabe arte originala sortzen duen batek”, haxe gehitu aitzin: “egiazko sortzailea ez da besteek gaitasunik ez duela edo malestruka dela lepora diezaiten beldur izan behar”. Berak zuen artistaren ASKATASUN eskubidea asmatu.

Illo beretik, Schopenhauerrek sakonki eragin zuen Nietzchen estetikan. Hain zuzen, haxe deklaratu zuen, bere aitzinekoaren teoriarekin puntu hortan bat eginez: “arte sorkuntza garaikidea ez litzateke diruaren eta bezeroen eskaeraren menpe izan behar... Artistak handienak forma ezagunak baino ustekabeko formak sortzen dituztenak dira”.


Alabaina, “Betiko Itzultzea” obraren autorearen ekarpen esanguratsua “arte apolutarraren eta dionisiarren” kontzeptua izanen da. Dionisioren maneran aurkituko ditugu bizitzaren iturriak, hala nola besta, irria, mozkorkeria... Aldiz, Apolorekin, adimena edo arrazoia moldatzen dira, kulturak izadia moztuz (Dionisioren alderantzizkoa), normen aurkitzea, simetriaren (geometria) edertasunari beha egotearen atseginez....

Elementu guzti horiek ez doaz bat besteari kontra, eta beraz hortan datza ene desmartzaren gizona; azken urteotako nire obraren eraikuntzaren zutabea, ardatz nagusia. Hortaz aipatutako kontzeptuen topaketaren ondorioz, jadanik erdi ireki nituen ateak osoki zabaltzen nituen, nire obraren eraikuntza irmoki segitzeko. Bi izpiritu handi horien hausnarketan, horren egituraketari eskas zitzaion euskarri teorikoa aurkitu dut, nire obraren jarraipen eta garapena lagunduz.

Max Ernst surrealista zehazki laburtu zuenez, dionisiarrak eta apolutarrak diren kontzeptuei ondokoa emendatuko diet: “Egia poetikoari gauzen ordena lanbrotzea beharrezkoa zaio”; zuhur-hitz hauek 70. urteez geroztik nireak egin nituen. Orduan, itxuraz sinplea den adierazpen honen atzean, dagoeneko ordena ezarriak birmoldatzera gonbidatuak gara, artearenak ez ezik, prozesu iraultzailearaino ailegatzen ahal direnak ere.

Bukatzeke, niri dagokidanez, adieraziko dut bat-bateko sorkuntzari lehentasuna ematen diodala, nolabait “ex nihilo”-ko sorkuntza bati; erran nahi baita margolaritza figuratiboan ibiltzen direnen moduko eredu edo aitzineko ohiturazko marrazki edo entsegurik gabe. Hutsetik abiatuz agian ez, zeren eta aitzineko obrak hurrengo iragartzen du, kasu gehienetan. Hala eta guztiz ere, erran nahi du espazio zuri baten aitzinean, hutsa, nire burua «terra incognita» abentura mundu bati buruz murgiltzen dudala. Sorkuntza artistikoa etengabeko abentura bihurtuz.

Ziburun 2013 08 09
Mikel Dalbret



Ene margolaritzaren 2.kapitulua

Obra baten eraikuntza eta gauzatzea



4. zbkia. Izar horia. Akrilikoa eta Pastela. 70x42 cm

Testu honek, Deituriko Ene Margolaritza, (lehen kap) jarraitzen du. Kapitulu horretan Jorge Oteiza eta Nestor Bazterretxea, Txillida ere baina gutiago heinean, euskal zizelkarien influentzia aipatzen da nire obra propioaren garapena azpimarratzeko.

2000ko urtean Gernikako Museoak antolaturiko nazioarteko erakusketa batera hartzeko parte gonbidatua izan nintzen. « Berradiskidetzerako artea /Art towards reconciliation », bakea eta baketzearen aldeko deituriko erakusketa ibiltaria, Espainia eta Alemaniako hiri nagusien zehar.

Fabore handiz jaso nuen gomita hori, are gehiago Euskal Herriko eskualdeen artean Iparraldeko ordezkari bakarra bainintzen. Euskal Herriko partaideak ziren besteak beste, Zuazo, Zumeta, Tamayo, Morras baita Basterretxea ere, dakigunez eskultorea izateaz gain margolaritzan ari zen ere.


Beste euskal artisten obrak arretaz ikertu ondoren nire ekarpenak, katalogoaren barnean ikusten ahal dena, izenburuko « Haustura » nabarmen ezaugarri bat bazuen. Gorago aipatutako eskultore famatu horien estiloa edo erarekiko, obra horrek baino ez zuela zerikusirik.

Hori argiki azaltzen ahal da, harri borobiletaz lantzen den gaia artista horien goiargi sortzearen iturrietako bat baitzen. Horretaz oroit gaitezen gai horren inguruan 90 urteen erdian hasi nintzela lantzen nire Biarritzeko atelerian.

Garai berean aipatu behar da ere Biarritze/Bidarte Estia ingeniari eskolarako, lehiaketa baten ondoriozko manuaren bat jaso nuela. Margo multzo bat aurkitu nuen, Iparraldeko borobilen apainketa ohargarrietako deklinabide inguru landuak. Aipatzekotan, nire ekarpena arte plastikariei buruzko kapituluari dagokionez, frantsesezko "Dictionnaire de culture et civilisation basque" deituriko liburuari (arg Elkar eta Arteak, 2013ko argitalpena).

Aipamen eta oroitze hauetaz euskal kulturaren eskolaren ospea eta originaltasunetik ahalik eta hurbilena izatea nire axolaren irudikatzeko. Hori buruz, grafikoazko gaiak borobila eta marraren ingurukoak, (batez ere paralelopipedekoa), nire obren egituratze errepikapen bereizgarriena da. Gainera duela gutxi arte artegintzaren historia europarra zeharkatzen diren mugimendu aristikoei begiratzuz, konturatzen da garaikideko eskulturgintza eta margolaritzaren arteko irudikapena alderantzizko joera hartzen duela bidea. Erran nahi du lehen ez zen bezala irudikapen horiek gero eta ezberdinagoak dira, bi mundutan zatiturik. Lehenago aipatutako artistak, (zerrenda ez da osoa) ilustrazio hutsa dira.

Nire argudiatze indartzeko baita argitzeko ere hona segidan proposatzen dut obra baten eraikuntza eta gauzatzearen analisi (bestaldetik kapitulu honen izenburua); sinplifikatzeko deituko dioguna margoa. Lehen kapituluaren sinoptikoan argiki agertzen den bezala deusetako ez ote den aipatzea neholako mailegurik zaidana debekatzen batez ere 20. mendean zehar urtatu dituzten arte bisualak korrante nagusiei dagokienez.



1. zbkia. Irudi zinetikoa. Akrilikoa. 146x110 zm

kasuan bakarrik zeren eta mugimendu horren artista gehienekin ez dut zer ikusirik bizpahiruekiko ezik; hala nola Vasarely kolorearen libertateari dagokionez eta Marc Cavell britainarra eta Agam israeldarra itxurarentzat. Haatik nire obra oroz kontuan hartuta nahi dut zehaztu bost margo horiek ez direla osotasunaren ordezkatzailleak, alderdiaren bat baizik.

Margo bateko sortze eta eraikuntza prozesura itzultzeko, erran dezagun sorkuntzaren ekintzaren hastapenean ideia edo aitzinetik egistamori gabe oinarriko jestuek espazio garbian gaindi ibiliz; ore berri hedatuaren gainean, tresna egoki baten bitartez zizelkatzen ditut marrak, gehienetan nolazbait hainbat marra paraleleoak, grafiak bezalako moduan.

Sorburuan kemena askatzen da, ondorioz marra horien ondoan ezartzetik erliebe txiki bat agertzen da; lehendabizi, beti ore berrian erabiliz (horretaz ari naizen lana egokia denez jakiteko ez da antzuzko ele nahasiak moldatzeko eperik) puntzoi edo spatula baten bidez nire gustora azala lantzen dut.

Ondoren noizbehinka, zura zizeltzeko tresna baten bitartez, ore berria oraindantik idorturik, erliebeen gainean esku hartzen ahal dut, bat-bateko sortzearen eragindako nahiaren arabera. Konturatzen gara beraz grabadura edo ebanistagintzaren lan batetik mugara garela.

Umore sortzearen arabera ekarpen horiek erabiliak izanen dira, margoaren eraikuntza grafikoaren barne edo inguruan. Bistan dena koherentziaren axola beti izanen da hurbil baina denboraz antolatzen eta egituratzen dira margoak, erran dezagun beraz obra orokorrarekin lantzen eta garatzen.

Arte bisualak izanez testuaren lagunduz margo batzuen argazkiek osatzen dute argudiatzea. Margo horiek multzo batekoak dira, zaharrena (1 zenbakia) 2011ko urtean eginik izenburukoa "irudi zinetikoa". Beste lauak ber familiakoak dira. Nahiz eta nihaur mugimendu horren kidea ez izan lan horiek lotzen dizkiot baina azpimarratu behar dut lan horien



2. zbkia. Diptikoa. Akrilikoa & Pastela. 102x60zm



3. zbkia. Ramiroren ametsa.
Akrilikoa eta Pastela. 112 x 152 zm

Lehen grafiak aipatuz lotura bat aurkitzen ahalko da "lettrisme" hogeigarren mendearen erdiko deituriko mugimenduekin. Horretaz aipatuko dut 70 urteen bukaeran, Maurice Ropin eta Mirabelle Dorsen (garai hartan beraren oso hurbil nintzen) «Figuration Critique saloia»ren eta Maurice Lemaître eta Isidore Isouren «Lettriste mugimendua»ren arteko elkarlana kari bi talde horien arteko baltsako egitasmoetara parte hartu nuen. Elkarlan horien ondorioz ekitaldi esberdinak antolatu genituen besteak beste 1978 eta 1979 urtetan Pariseko Luxemburgo Museoan "Salon de la lettre et du signe"(hizki eta keinuaren saloia). Kari horretara mugimendu artistiko garrantzitsu horren artista nagusietako obretatik parada izan zitzaidan hurbiltzea. Ekarpen horrek ere eragingo dio, dudarik ez, nire lanaren egituraketari.

Margoaren eraikuntzara itzul gaiten; adieraziko dut aldi hortara iristean, segidan, erliebezko grafietako inguru edota hauen barnean, espazioa antolatzen dut; ber denboran lanaren azken faserantz proiektatzen naiz, erran daiteke margolari baten lana arruntena dela , nolazbait konbentzional, kolorearena.

Konbentzional zeren eta hortik goiti azalerak margotuak izanen baitira erran dezagun sinpleki. Teknikaren erabiliz akrilikoa bakarrik 1 zenbakiko margoan, zaharrena, ordutik pastel idor lan teknikarekin nahasturik (margoak 2 3 4 5 zenbakiak).

Hala ere katebegi azkenara iritsi eta gero gauza inportantena berezkotasuna da baita sortze edo asmakizuna ere; artistikoki hitz egiterakoan doi doia esberdina da hori baina biak nahitaezkoak edertasun eta harridura etengabeko bilaketa ibiliz inoiz asebate izanez.

Obrari azken hunkialdia emanen zaio berniz egokien bitartez.

Mikel Dalbret Ziburun 2013 12 02



5. zbkia. Alacantik Ziburura. Akrilikoa eta Pastela. 62x46 zm